

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko azaroaren 11. VIII. urtea. 2.306. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Amasako gazteek atzo euren eguna ospatu zuten, eta goizean zehar baserriz baserri eskean ere ibili ziren. A. IMAZ

## Gazteek hartu dute Amasako San Martin jaietako lekukoa

Gazteen Eguna ospatu zuten atzo; baserriz baserri joan ziren eskean eta sokadantza eta aurrekua ere dantzatu zituzten plazan

San Martin eguna da gaurkoa; idi demak eguerdian izango dira, eta mozorro gaua ere izango dute Laiotz taldeak alaiturik 04

## Manex Castro eta Mikel Garmendia billabonatarak epaitu dituzte

Fiskaltzak 25 urteko espetxe zigorra eskatu du Castrorentzat; erakunde armatuarekin kolaboratzea egotzita, zortzi urte eskatu ditu Garmendiarentzat 04

## Xanti Aizpurua

Erremonte jokalaria

«Jokatzeke aukerak nituela ikusten nuen, eta hala gertatu da»

Lehenengo aldiz parte hartzen ari da pilotari tolosarra binakako txapelketan; Koteto Ezkurra da bere bikotea

Elkarrizketa 02

## Patxi Zeberio

Erremonte jokalaria

«Azken hilean, uste baino hobeto hartu dut berriro jokoa»

Iaz bezala, Ion bikotearekin parte hartuko du elduaindarrak binakako txapelketan, bi hilabetez lesionatuta egon ondoren

Elkarrizketa 02

## Berrobiko giza proba taldea «gogotsu» joango da Errezilgoak garaitzea

Bihar Errezilgo beheko plazan, 22:30etik aurrera, 1.100 kiloko harriarekin 20 minututan metro gehien egiten dituenak irabaziko du 07



Berrobiko taldea «gogor» ari da entrenatzen. I. TERRADILLOS

**TX** saridunak benje sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

• Aloña Usandizaga (Irura)  
• Jose Manuel Jauregi (Anoeta)

**LAGUN ARO GBC**  
Assignia Manresa  
saskibaloia partida

Azaroak 12 - Larunbata 20:00etan  
Donostiako Ilunben

Sarrerak eskuratzeko HITZAKo bulegotik pasa

Errausketa zero trua berria martxan!  
Errausketa lane propozatzen.

Eskualdeko bi pilotarik hartzen dute parte Erremonteko Binakako Txapelketan, II. Azysa Torneoan. Horietako batentzat, Xanti Aizpurua tolosarrentzat, lehenengo parte hartzea izaten ari da. Bestea, Patxi Zeberio elduaindarra da, lehiaketan txapela gehien jantzi dituen, sei guztira. Bihar, 16:00etan, Galarretan elkarren aurka jokatu dute.

Xanti Aizpurua ◊ Erremonteko jokalaria

## «Sekulako ilusioarekin hartu dut txapelketan egotea»

**Imanl Garcia** Tolosa

Xanti Aizpuruaarentzat (Tolosa, 1975) txapelketa berezia da aurtengoa, lehenengo aldiz parte hartzen duelako. Bikote moduan, Koteto Ezkurra du, eta aurreko asteburuan jokatu zuten lehenengo partida irabazi zuten.

**Zer suposatzen du zuretzat lehenengo aldiz binakako txapelketan parte hartzea?**

Gauza handia da. Urte hauetan erremontea killi-kolo ibili da. Berririo martxan jartzea eta horrelako aukera bat izatea ni bezalako pilotari batek, urte batzuk daramatzana honetan, sekulako ilusioarekin hartzen da. Beste torneo batzuk jokatu ditut, pilotari horiekin, baina ez binakako txapelketa.

**Aurretik espero zenuen parte hartuko zenuela?**

Aurretik ez dute abisatzen. Azkenengo unera arte ez dute argi izaten zeinek jokatu duen. Aurten suposatu dugu aukera asko genuela. Atzelari batzuk lesionatuta egon dira, eta joko onarekin ha-



MAIALEN ANDRES

rrapatu gaitu. Aurten ikusten nuen aukerak nituela, eta halaxe aterata da.

**Nola hartu zenuen zure bikotea Ezkurra izango zela jakitean?**

Ilusio handiarekin. Azken urteetako pilotari handienetako batekin jolastea ilusioa handia ematen du. Gainera txapelketan asko jokatu du. Orain badaude ger-

turutzen ari zaizkion pilotariak, baina oraindik hor dauka bere maisutasuna.

**Nola ikusten duzu txapelketa?**

Nahiko gogorra ikusten dut. Bi bikote oso indartsu daude, batez ere Zeberio eta Ion. Zeberio beti ematen du gehiena, eta berak ditu txapel gehienak. Zeozer bezela du txapelketa honek, eta

bere bikotea ere une onean harraipatu du. Gero, Urriza oso jotzailea da eta bere aurka tokatzen bazailgu, oso zaila izango da berari irabaztea.

**Aurreko asteburuan, lehenengo partidari irabazi egin zenuten. Nola joan zen neurketa?**

Faborito gu ateratzen ginen, nahiko garbi, eta presio pixka bat ematen zigun horrek. Baina, hasieran hotz samar hasi nintzen. Pilota pare bat galdu nituen, eta jokoan gehiegi sartu gabe aritu nintzen. Behin hamar hamabi tantotik aurrera, izerdia botatzen hasi nintzenez, jokia gehiago sartu nintzen eta Ezkurra ere tantoak egiteko aukera gehiago izan zuen, eta orduan eman genion buelta partidari.

**Zure lehen parte hartzean, lehenengo partidari irabazte, berezia izango zen.**

Bai, garrantzitsua da. Azkeneko hilabeteetan partida dezente jokatu ditut batera, eta gehienak irabazita. Baina txapelketetakoak dira irabazi beharrekoak, eta ondo aterata zitzailgu.

**Larunbatean Zeberio eta Ion aurka duzue partida. Esan duzun bezala, bikote zaila izango da, ezta?**

Bere jokia egingo dute. Pentsatzen dut jokia niri kargatzen saiatuko direla, eta nahiko lan izango dudala. Nik uste dut, aguantatuz gero, irabaztea dagoela, baina ondo jolastu behar da. Nahiz eta 32 edo 33 tanto egin, finalerdietarako sailkatuta egongo garen, horri ez zaio begiratu behar. Gu irabaztera joango gara eta ea zer ateratzen den.

**Estrategiarik pentsatu duzue?**

Partidan aurretik ez dugu asko hitz egiten. Akaso aldagelan edo partidari zehar bi hitz egiten ditugu. Aurretik badakigu zeinen kontra jokatu behar dugun eta nola ariko diren.

**Tolosaldeko edo ingurutik joaten dira partidari ikustera?**

Finalerdietan ematen da salto handiena. Hor jende gehiago pila-tzen da. Giroa asko aldatzen da txapelketa denean. Kantxara ateratzen zarenean, ikusleei begiratzen diezu eta giroa desberdina izaten da.

Patxi Zeberio ◊ Erremonteko jokalaria

## «Txapelketa irekia eta lehia handikoa izango da»

**I. Garcia** Elduain

Patxi Zeberio (Elduain, 1974) bere zazpigarren txapelaren bila aterako da binakako txapelketara. Lesio batetik atera ostean, gogoz ekingo dio lehiari.

**Denbora tarte batez jokatu gabe egon zara. Zer gertatu zaizu?**

Udan, buruz buruko bat jokatu ari nintzela, besoan haustura txiki bat izan nuen. Bi hilabete eta aste bat geldik egon behar izan ditut, lesioa sendatu eta berriro martxa hartu arte.

**Zer moduz joan da geldialdia?**

Gogorra izan da. Ez nintzen behin ere hainbeste denbora geldirik egon, eta egia esan asperrakia egiten da. Gehienbat haustura hori nuelako eta ezin izan dudalako ezer egin. Konturatzen zara besoko giharrak asko jaisten dela, eta horri buelta hasten zara, ea berriro lehenengora itzuliko den. Txapelketari iritsiko ote zinen kezkatuta egon zara?

Mikrohaustura bat nuen eta ohikoa da bi hilabete epea ematea sendatzeko. Hiru hilabeteko tar-

tea nuen osatzeko. Hasieran ez nuen pentsatzen hainbeste denbora izango zenik, baina ikusten nuen oraindik ez zegoela osatuta, eta denbora aurrera joan ahala, gehienbat kezkatzen ninduen txapelketara ez nintzela oso sasoi onean iritsiko. Azken hilabete honetan uste baino hobeto hartu dut jokia berriz ere, eta uste dut nahiko puntu onean iritsiko naitzela.

**Nolako txapelketa antolatu dela uste duzu?**

Egia esan nahiko irekita ikusten dut. Aurten iruditzen zait oso parekatuta daudela bikoteak. Denak nahiko bikote antzekoak dira. Urte asko daramatzagun pilotariak nahastua gaude atzetik datozenekin. Lehia handiko txapelketa izango da.

**Zuk, iaz bezala, lonekin hartzen duzu parte. Iaz finala jokatu zenuten, baina ez zenuten txapela lortu. Aurten goan, bila joango zarete, noski.**

Aurten ere berarekin tokatu ziat, eta oso gustura. Laguna da kantxan, eta kanpoan ere bai, eta horrek ere berearekin jokatzeko ilu-



HITZA

sio egiten dit. Agian gustatuko litzaidelke partida gehiago jokatzeko udan elkarrekin, gero hobeto aritzen zarelako. Ez da posible izan, baina oso gustura nago berarekin jokatu dudalako.

**Larunbatean, zuen lehenengo partidari irabazi duzue. Biak ondo ezagutzen dituzu, ezta?**

Afizionatutan Aizpuruaekin batera jokatu nuen. Gero profesionalen artean ez dugu elkarrekin gehiegi jokatu izan. Kotetorekin bai, seguruenik bere kontra jokatu ditut partida gehien, eta oso ondo ezagutzen dut. Partida zaila izango da. Beraiek partida bat irabazita dugu, eta iruditzen zait laisatasun puntu batekin egongo

direla. Aizpururen kasuan, lasaitasun horrekin joatea eta bere jokia egiteko aukera gehiago izanik, iruditzen zait asko jokatu beharko dugula partida irabazteko. Aukerak baditugu, eta ea partida aurrera ateratzeko gai garen.

**Zer joko egiten saiatuko zarete?**

Estrategia, kasu honetan, Kote-tok pilota gutxi ukitzea izango litzateke. Partidako zama berak eramango du, eta arrakatsuen, teorian, bera da. Ea Aizpurua pixka bat zigortzen dugun eta min pixka bat egiten diogun. Gero, ikusi behar da partidari zer material daogen, eta bakoitza nola jokatu ari den. Askotan, modu batera jokatu hasten zara eta gero aldatu egin behar duzu.

**Orain gutxi, erremontea krisian egon da. Nola ikusten duzu gaur egun?**

Gaia zaila ikusten da. Orokorrean, dena bezala, une zailak pasatzen ari da. Orain dela urte eta erdi aurreko enpresak utzi zuten eta jende berria sartu da. Ilusio handiarekin ikusten da, lanean buru belarri. Nire ustez erremontek aurrera jarraituko du.

↓ **Kirola Usabalen****AZAROAREN 12A, LARUNBATA****Areto futbol**

- **10:30.** Laskorain-MCM, gizonen junior mailan, beheko kantuan.
- **16:30.** Laskorain-Zierbana, gizonen nazional mailan, goiko kantuan.
- **09:00.** T. Montesku-Bera, emakumezkoen infantil mailan, goiko kantuan.
- **09:00.** T. Bedaio-Hernani, gizonen infantil mailan, goiko kantuan.
- **10:30.** T. Oria-Easo 98, gizonen infantil mailan, goiko kantuan.
- **10:30.** Triki Take-Easo 97, gizonen kadete mailan, goiko kantuan.
- **12:00.** Take Aralar-San Marcial, emakumezkoen kadete mailan, goiko kantuan.
- **18:00.** Bide Bide Ibiza-Santurtzi, gizonen nazional mailan, goiko kantuan.

**Futbola**

- **09:00.** Tolosa-Ostadar, emakumezkoen infantil mailan.
- **10:30.** Tolosa-Ostadar, gizonen infantil ohorezko mailan.
- **12:00.** Tolosa-Lazkao, emakumezkoen kadete mailan.
- **13:30.** Tolosa-Ordizia, emakumezkoen junior mailan.
- **15:30.** Tolosa-Ordizia, emakumezkoen senior mailan.
- **17:30.** Tolosa-Ostadar, gizonen ohorezko junior mailan.

**Mahai tenisa**

- **11:00.** Oargi-Irun.
- **16:00.** Usabal-Lautaro.

**Eskubaloia**

- **12:00.** Tolosa-Urola, beheko kantuan.

**AZAROAREN 13A, IGANDEA****Eskubaloia**

- **10:30.** Tolosa-Loyola Indautxu, gizonen kadete mailan, goiko kantuan.
- **12:00.** Tolosa-Loyola Indautxu, gizonen junior mailan, goiko kantuan.

**Realak eta Racing-ek lagunartekoa jokatuko dute gaur, Berazubín**

Sarrerak eskuragarri daude hainbat tabernetan, eta baita Tolosa CFeko bulegoan ere

**I. Urkizu**

Realak eta Racing futbol taldeek lagunarteko partida jokatuko dute gaur, Berazubín futbol zelaiaren.

Arratsaldeko 18:00etan hasiko da norgehiagoka, eta sarrerak 66 tabernan, Iurre tabernan nahiz Tolosa CFren bulegoan eskura daitezke. Bertaratuen artean, Realeko 5 elastiko zozketatuko dituzte. Aipatzekoa da, futbol zelaiaren aurreko plazan, aparkalekua mugatua izango dela.

**Irudia****MARTIN GARITANO TOPIC-EKO ARETOAN**

Pasa den asteazkenean, azaroak 9, Martin Garitano Gipuzkoako ahalzun nagusiak, *Kontuak garbi, Gipuzkoa berri baterantz* eneko hitzaldia eskaini zuen Topic-eko aretoan, zenbait diputatu eta batzarkiderek batera. Besteak beste, saioan

2012. urterako aurrekontu orokorren proiektua aurkeztu zuten, 2011n izan diren diru sarrerak eta gastuak, 2012an izango diren alderatuz. 19:00etan hasi zen hitzaldia, eta ordu eta erdi inguru iraun zuen bilera irekiak. ITZEA URKIZU

**Mecanori omenaldia egingo dio 'La fuerza del destino' musikalak**

Talde madrildarraren abesti ezagunenak entzun ahal izango dira gaur, Leidor aretoan, 20:30etik aurrera

**I. Urkizu**

Musikariak, abeslariak eta dantzariak parte hartuko dute, 80ko hamarkadan Madrilan sortu zen Mecano taldearen omenezko *La fuerza del destino* musikalean.

Musika taldeari omenaldi txiki bat egingo diote hortaz, hain zuzen ere aurtan betetzen baitira 30 urte. *Hoy no me puedo levantar* abestia lehenengoz entzun zenetik.

Leidorreko oholtza gainean gaur, 20:30etik aurrera, Alberto Escobar-ek zuzendutako taldea ariko da lanean, eta hamar dantzariak Madrilgo musikal nabarmenatarikoetan parte hartutakoak dira. Horrez gain, lau musikari eta bi dantzari ere izango dira.

**'Hango eta hemengo kondairak' izango dira Urkizuko Alur Txikin**

Zurumurrur antzerki elkartearen eskutik, ipuin kontalaria izango da bihar, 17:00etatik aurrera

**I. Urkizu**

Ipuinen munduaren sorrera eta antzeko kontuak izango dira bihar Urkizun, Zurumurrur antzerki taldeak Alur Txiki auzo elkartearen eskainiko duen ipuin

kontaketan. *Hango eta hemengo kondairak* izenburupean, haurrei zuzendutako emanaldia izango da, 17:00etatik 18:00etara bitartean.

**Urteak antzerki munduan**

Puy Oses, Nerea Ariznabarreta eta Irati Trebiño dira Zurumurrur taldeko kideak. Hirurak antzerki munduko hainbat adarretan aritu izan dira, eta Zurumurrur bakoitzak bere aldetik egindakoa uztartzeko aukera eman die.

# EUSKADIREN ALDE



JOSU IMORKOA



ANEIZA TAPIA

Prest gaude. Imotasuna, esperientzia eta bizitasuna ditugu. Egunero ahalegintzen gara. Horregatik konfiantza eduki dezakegu. Inteseko gai izango gara. Aurrera egiteko gai.

www.eai-pnv.eu

# San Martin egunarengatik ekitaldi ugari, Amasan

Gazteak goizean goiz irten ziren atzo kalera, eta umoretsu baserriz baserri eskean ibili ziren

**Asier Imaz** Amasa

Amasako jaietan, euren egun handia ospatu zuten atzokoan gazteek. Goizean goiz irten ziren kalera, 06:00ak inguruan, hain zuzen ere. Ongi gosalduta eta bi taldeetan banatu ziren, baserriz baserri eskean ibiltzera joateko. Trikitilari eta dultzaineroen laguntzarekin, jaiak Amasako txoko guztietara zabaldu zuten.

Gazteek ordulari behar handirik ez zuten izan, denborari erri-

moa euren jarri baitzioten. Arratsalde hasieran, bi taldeek plazan egin zuten topo; elkarrekin Uxo-Toki elkartera bazkaltzera joateko. 17:30ak inguruan, sokadantza eta aureskuak dantzatu zituzten Amasako plazara gerturatu ziren herritarren aurrean, hori bai, beti ere modu tradizionalan. Hortik aurrerako egin beharrekoak, erromeri eta afari artean egin zituzten.

## San Martin eguna

Jaietako egun handia gaurkoa izango da. Idi demak, pailazoak, txokolate beroa eta parranda. Guztiek bat egingo dute gaurko San Martin egunean. Jai giroa nahi duenak, beraz, Amasan du hitzordua.



Arratsaldean dantzan ibili ziren. A.I.

## ↓ Egitaraua

### AZAROAK 11, GAUR

- **10:30ean.** Meza nagusia.
- **12:00etan.** Idi demak Joxe Munduate eta Iñigo Gorostazu bertsulariek, eta trikitilariak alaiturik.
- **17:30ean.** *Irrien lagunekin kanta eta dantza* pailazoan emanaldia.
- **Ondoren.** Txokolate beroa.
- **20:00etan.** Amasako XX. Bakkilo Lehiaketa frontoian.
- **Ondoren.** Mozorro gaua: mozorrorrik onenarentzat saria egingo da.

- **23:30ean.** Laiotz taldea.
- **02:00etan.** Mozorrorrik onenaren sari banaketa.

### AZAROAK 12, BIHAR

- **11:00etan.** Ume krosa, 6. maila arteko umeentzat.
- **12:30ean.** Giza proba: Amasako gazteak eta Zizurkilkoak.
- **14:00etan.** Herri bazkaria.
- **18:30ean.** Onintza Agirre organo-jolearen eta Naroa Enekotegi abeslariaren kontzertua elizan.
- **22:30ean.** Bertso saioa: Andoni Egaña, Jexux Mari Irazu, An-

der Lizarralde eta Beñat Iguaran. Gai jartzailea: Amaia Agirre.

■ **Ondoren.** Zea Mays eta Ingo al deu? taldeak.

### AZAROAK 13, ETZI

- **11:30ean.** Ume jolasak frontoian eta euskal astoekin pasean ibiltzeko aukera.
- **18:00etan.** Herri kirolak herriko gazteen eskutik.
- **Ondoren.** Martina Sorginaren agurra su artifizialek lagundurik. Jarraian, XXII. Intxorren alde-tzea.

# Epaiaren zain geratu dira Castro eta Garmendia

Mikel Garmendiak erakundearekin inoiz ez duela kolaboratu esan zuen atzo, Madrilen izandako epaiketan

**A. Imaz** Villabona

Espainiako Auzitegi Nazionalen atzo epaitu zituzten Manex Castro eta Mikel Garmendia billabonatarak. Madrilera hainbat herritar joan ziren, gazteei elkartasuna azaltzeko eta lekuko bezala epaiketan parte hartzeko. Fiskalak Manex Castrorentzat 25 urteko espetxe zigorra eskatu zuen, Lazkaoko PSE-EEren egoitzan lehergailua jartzeagatik. Mikel Garmendiaren aurka, zortzi urteko espetxe zigorra eskatu zuen, erakunde armatuarekin kolabo-

ratzeagatik. Bi euskaldunek fiskalaren galderei ez zien erantzun, bai ordea defentsa abokatuarenei. Mikel Garmendiak erakundearekin inoiz ez duela kolaboratu aipatu zuen. Furgoneta Castrori utzi izanaren zergatia, berak eta defentsaren lekukoek argitu zuten. Hauen esanetan Garmendiak edozeini uzten zion bere furgoneta, lo egiteko egokituia zegoelako.

Defentsa abokatuak Mikel Garmendia libre uzteko eskatu zuen. Castrok, bere aldetik, atentatuaren ardura bere gain hartu eta Mikel Garmendiak zerikusirik ez zuela izan azaldu zuen. Madrilen izandako herritarrek, Mikel Garmendiarekin batera, arratsaldean abiatu ziren Euskal Herrira. Epaiak argitaratu noiz irtegan den ez zekitelako azaldu zuten: «Bi aste edo bi hilabete izan daitezke».

# Bi asto Joakin Garmendiaren idi parearen aurka, bihar

Hernialdeko plazan apustua jokatuko da bihar, 22:00etan; jokoan 1500 euro egongo dira

rria eraman beharko dute, eta 750 kilokoa Garmendiaren idiek.

Larunbatean Hernialdean txerria hiltzen dute, eta ondoren bazkaria egingo dute. Apustua jai giro honetan kokatu dute parte hartzaileek.

**A. Imaz**

Anoetako Joakin Garmendiaren idiek apustua jokatuko dute bihar, hilak 11n, Hernialdeko plazan. 22:00etatik aurrera, idi pareak bi astoren aurkako dema jokatuko dute. Astoak Eneko Sein pasaitarrak ekarriko ditu. Alde bakoitzak, 1500 euro jarriko ditu mahai gainean.

Ordu erdiko lanean, zeinek plaza gehiago egin; horixe da apustua. Euskal astoek 450 kiloko ha-

**Sarrera doan**

Hernialdeko plazara nahi duen orok joateko aukera izango du, sarrerak doan baitira. Hala eta guztiz ere, euro baten truke, saski baten zozketarako txartela eskuratuko dute hara biltzen direnek.

Hernialdeko jaietan sortu zen desafioaren ideia, abuztuan, hala-koak sortu ohi diren lege: mahaiaren bueltan eta ordu txikitant. Seinek bota zuen desafioa, eta Garmendiak onartu. Orain, plazan ikustea falta da.



Joakin Garmendia bere idi parearekin. HITZA

30 min  
+10 te  
glia

6. JARDUNALDIA

IMH, Elgoibar  
2011/11/17  
8:45-16:30

Inskripzioa (berarriedoa)  
www.imh.es - imh@imh.es  
Telefona 943 74 41 32  
IMH, Azkue Auzoa 1 - Elgoibar

30+10 mintegia  
hizkuntza-kudeaketa  
enpresan

Antolatzailea	Kolaboratzaileak
<p><b>Makina Erremintaren Institutua</b></p> <p><b>8 hitzaldi + 2 mahai inguru + KEKAKO (networking) ... aukera itzazu zureak!</b></p> <p><b>HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUORDETZA</b> GIPUZKOAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA ELGOIBARKO UDALA Mintegiaren sarrera</p> <p><b>ANBOTO GROUP.</b> Xabier Uribe-Etxebarria</p> <p><b>THEM! TEAM.</b> Responsable Global, Josep Maria Canyelles</p> <p><b>GIPUZKOAKO TXINERA INSTITUTUA.</b> Miren Gablondo</p> <p><b>EMEN</b> Enpresan sareko hizkuntzak, MU-Enpresagintzako itzulpene programara</p> <p><b>ELEKTRA INGENIARITZA LINGUISTIKOA.</b> Mihailogan</p>	<p><b>Eusko Jaurlaritzak</b> Gipuzkoako Foru Aldundia Elgoibarko Udala Añize-AEK</p> <p><b>MAHAI INGURUA:</b> "Hizkuntza kudeaketa eta enpresa ekintzak". Parte hartzaileak: -Jose Pelli Urquien Berrituzte Diputatuak. -Marta Lopez de Guretu CONFESAIK -Miren Gablondo -Xabier Uribe-Etxebarria -Josep Maria Canyelles Moderatzailea: Mikel Urtegarin (Añize-AEK)</p> <p><b>MAHAI INGURUA:</b> "Lizentzia, subzentraketa eta merkaturatzearen inguruko hizkuntza kudeaketa". Parte hartzaileak: -Fopagunea -Añize -Ekoizgarri Abokatuak -Emen -Añize-AEK Moderatzailea: Nekane Goikortxe (Muhaz)</p>

Informazio gehiago: [www.imh.es](http://www.imh.es)



KALITATE TURISTIKOA

## « Hasieran lan asko ematen badu ere, merezi du benetan, Q ziurtagiria lortzeko bidea egiteak »

Euskadin honezkero 273 establezimenduk jaso dute turismo arloko enpresen zerbitzua zertifikatzen duen Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria. Jardunbide Egokirako programan, Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude. Bereizkuntzak, formakuntza eta hobekuntzarako konpromisoa, establezimenduen kudeaketan dedikazioa eta zorroztasuna aitortzen ditu, kalitatearen hobekuntzarako planen bitartez. Helburu nagusia etengabeko hobekuntza da.

Sonia Tapia. KALITATE ARDURADUNA

Sonia Tapia iruraria, Fronton Jatetxeko sukaldari eta kalitate arduraduna da. Oso gustura dago orain dela lau urte hasitako ibilbidearekin. Kalitate turistikoaren Q-a ezartzeak asko lagundu die enpresaren antolaketan; halere, argi utzi nahi du kalitatea beti izan dutela eta hobekuntzak, batez ere, barne funtzionamenduan etorri direla. Zeintzuk izan ziren sistema honen alde apustua egiteko arrazoiak?

Interesgarria inuditu zitzaigulako. Hasieran zailtasunak izan genituen, eguneroko lana egitean buruan gurena paperean idatzi behar genuelako. Baina esperientzia berria zenez, gustura egin genuen.

**Zein abantaila ekarri dizkizue Q ziurtagiria edukitzeak?**

Aide batetik, turista gehiago hurbildu dira eta beste aldetik, enpresaren funtzionamenduan onurak ekarri ditu (instalazioan, segurtasun kontrolean...).

**Ezarpenaren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue, barne funtzionamenduari begira? Eta kudeaketa galetan? Eta azpiegitura kontuetan?**

Orain dena idazten dugunez, dena orrietan ageri denez, eskaerak egiterako garalan ardurak banatzea errazagoa zaigu; bat falta bada ere bes-



teak, orrietan begiratu, eskaria egin dezake. Lehen bakoitzak berea egiten zuen, orain ordea, enpresa bat bezala funtzionatzen dugu. Azpiegiturari dagokionez, ez da aldaketa handirik eman, guk hemen la urtero berritzen baitugu zerbait. Sukaldea eta jantokia ere egoera egokian zeuden eta ez dugu berritze lanik egin behar izan. Zeintzuk dira bezeroaren

**asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?**

Guk betidanik ondo zaindu izan ditugu bezeroak, homegatik, ez dute aldaketarik nabaritu. Eman ditugun hobekuntzak eta aldaketak langileon funtzionamenduan izan dira.

**Zer esango zenieke turismo arloko profesionali Kalitate Turistikoaren Q-aren**

**ezarpenerako animatu daitezten?**

Benetan merezi duela esfortzua egiteak; lan egiteko moduak hobera aldatzen direlako.

**Beste enpresari batzuei kalitate sistema zertifikatua-ekin lan egiteko gomendatuko zenieke?**

Bai, gainera honetan hasi ginenean, egin genuen prentsaurreko bat jendea anima-

tu nahian. Hasieran lan asko da zure lan egiteko ohiturak aldatu behar dituzulako, baina hobera egiteko da. Hoberena lan guztia langileen artean banatzea da.

**Kalitate Turistikoaren Q-a prozesuak zure erakundearen kokatze lehiakorragoa ahalbidetzen du?**

Lehiakortasuna beti dago. Q ziurtagiriak laguntzen du lehiakorrago izaten baina aldatetarik ez dira oso handiak izan.

**Kalitate Turistikoaren Q-aren kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke garrantzitsuen edo erabiltzarrien modura?**

Ziurtagiri hau lortzeko lan asko eskatzen du; hainbat betebeharrak dauzkagu. Hau lortzeko, noski, beharrezkoa da antolaketa on bat. Hori da azpimarratuko nuklea; honek denak langileria hobeto antolatzea ekarri baitu.

**Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzue edo sartzeko asmoa duzue?**

Egiten dugun lana lehen egiten genuena bezalakoa da, kalitatea lehen bagenuen eta orain ere izaten jarraitzen dugu. Desberdintasun bakarra da, orain dena ageriko dela idatzi egiten dugulako.

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuan, enpresa lehiakorrago izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

### JARDUNBIDE EGOKIAK

Kalitatearekiko konpromisoa eta sensibilizazioa, hautatutako norakoetan turismo arloko profesionali zuzendutakoa.

### KALITATE TURISTIKOAREN Q-A

Kalitate kudeaketaren sistemaren egiaztatpena. Bezeren iguripenaren betekizunaren bermea.

### E.FQM BIKAINTASUN EREDUA

Erakundeek kalitatearekiko bikaintasuna aurrean jartzen dien programa.

### JARRI KALITATE TURISTIKOAREN Q-A ZURE ESTABLEZIMENDUAN!

94 607 75 86  
94 404 74 70

www.turismoa.euskadi.net  
www.euskalit.net

# Kultur ekitaldiz betetako astea izango dute Adunan

Kultur astean sagardogintzari buruzko hitzaldi didaktiko bat egongo da, Aburuzan

**M. Ugartemendia** Aduna

Datorren astean Aduna kultur ekitaldian murgilduko da, kultur astea ospatuko baitute.

Kultur astea astelehenean hasiko da, ikus-entzunezko batekin. Emanaldi honek bikote batek, beren bi seme-alabekin Zeelanda Berritik zehar hiru hilabetez bizikletaz egin duten bidaia baten berri ematen du. Ikus-entzunezkoan Kiwi familia batzuekiko harremana, ikaragarritzko paisaia,

animaliekin izandako topaketak, bertako flora ugaria eta hiru hila-beteko bidaia zehar familiaren bizipenak ezagutu ahal izango dira.

Ekitaldirik gehienak asteburu izango dira. Ostiralean, zehazki akrobazia ikuskizuna eta kantaldia izango dira Asvinenean. Tartean, zerbait jateko aukerare izango da; ogitartekoak eta abar erosi ahal izango baitira. Larunbatean, kantuaren eguna izateaz gain, sagardogintzari buruzko hitzaldi didaktiko bat ere izango da. Ondoren, sagardotegian bertan bazkaltzeko aukera izango da. Baina, bazkarira joan nahi dutenek txartelak hilaren 16a baino lehen erosi beharko dituzte, Uztartzan. Amaiera, frontoieko barrikotearekin emango diote.

## ↓ Kultur Astea

### AZAROAK 14, ASTELEHENA

■ **20:00.** *Zeelanda Berria bizikletaz* ikus-entzunezkoa, kultur aretoan.

### AZAROAK 15, ASTEARTEA

■ **20:00.** Patxi Abasoloren, *Konkistak 500 urte, deuseztatu ezin izan duten oroimena* hitzaldia, kultur aretoan.

### AZAROAK 16, ASTEAZKENA

■ **17:30.** *Zorroak* antzezlan, Zurrumuru taldearen eskutik, kultur aretoan.

■ **20:00.** Pedro Albiteren *Migratzioa eta aniztasuna* hitzaldia, kultur aretoan.

### AZAROAK 17, OSTEGUNA

■ **20:00.** *Julian Bereziartua medikuaren Zer adinetan zer* eta nola jan hitzaldia, kultur aretoan.

### AZAROAK 18, OSTIRALA

■ **19:45.** Aireko akrobazia ikuskizuna izango da, Asvinenean.  
■ **22:00.** Xabier San Sebastianek kantaldia eskainiko du, Asvinenean.

### AZAROAK 19, LARUNBATA

■ **12:00.** Kantu jira herriko plazatik abiatuta.  
■ **13:00.** Sagardogintzari buruzko hitzaldi didaktikoa, Xabier Kamio etnologoarekin, Aburuzan sagardotegian.  
■ **14:00.** Bazkaria Aburuzan sagardotegian. Ondoren, kantu jira.

### AZAROAK 20, IGANDEA

■ **17:00.** Korri eta Xalto pailazoen emanaldia frontoian.  
■ **18:30.** Barrikotea, ardoa, taloak eta gaztaina erreak dastatu ahal izango dira.

# Mondejo lehiaketa, Amezketako azokaren barruan

Gaur San Martin eguna ospatuko dute, Amezketan; herritar guztiei zuzendutako ekitaldiak egongo dira

**M. Ugartemendia** Amezketan

Aste kulturalaren erdia igarota, festa giroz betetako asteburu dute aurretik amezketarrek. Igandean emango diote amaiera, aurreko ostiralean hasitako kultur asteari.

Kultur astea San Martin egunaren bueltan antolatzen da, eta gaurko eguna egun garrantzitsua da amezketarrentzat. Herritar guztientzat ekitaldiak izango dituzte gaur.

Biharko ospakizunak, Ugarten egingo dituzte. Mus txapelketa eta afaria izango dituzte. Amaiera emateko, igandean, urtetik urtera gero eta garrantzia gehiago hartzen ari den azoka izango da. Aurten berezitasun batekin, mondeju lehiaketa bat egingo baitute. Bukaera bikaina, aste bikain baterako.



*Elikadura energetikoa* hitzaldian, 40 lagun inguru bildu ziren. A. ZABALA

## Parte hartze handia

Orain arte antolatutako hitzaldietan parte hartze handia izan da. Asteartean, esate baterako, bi hitzaldi izan zituzten. Alde batetik, *Erretiro aktibo eta solidarioa* hitzaldia izan zen, eta honekin interes berezia piztu zuen pertsona helduengan. Iluntzean, Itziar Artolak eskainitako *Elikadura energetikoa hitzaldian*, berriaz, adin guztietako 40 lagun inguru elkartu ziren. Bertan elikadurek daukaten energia beroari eta hotzari buruz aritu ziren. Eta

gure elikaduran zerealek duten garrantzia azpimarratu zen. Gi-zakiok behar dugun energia zereal, barazki eta fruten arteko oreka batetik lortuko litzateke. Hara-gia, arrautza edo esnekiak ere beharrezkoak dira, baina, betiere bere neurrian. Amaieran, hitzaldian parte hartu zuten herritarrek ados zeuden orain entzundakoa praktikan jartzea zela zailena.

## ↓ Asteburuko ekitaldiak

### AZAROAK 11, GAUR

#### San Martin eguna

■ **11:00.** Meza. Ondoren, Laja eta Landakanda trikitilariak, eta Bixente eta Peña bertsolariak. Eta, San Martin eguneko bazkaria, Beartzana jatetxean.  
■ **13:30.** Umeen bazkaria.  
■ **Arratsaldean.** Txirri, murri eta morritoston antzerkia, kultur etxean. Ondoren, umeentzat jolasak eta txokolatea.  
■ **Iluntzean.** Patata tortila lehiaketa.  
■ **21:00.** Zahagi ardoa.

■ **Gauean.** Poteo musikatu egingo dute herrian barrena.

### AZAROAK 12, BIHAR

#### Ugarten

■ **15:30.** Mus txapelketa.  
■ **20:30.** Afaia Ugarteko elkar-tean.

### AZAROAK 13, IGANDEA

■ **10:00etatik aurrera.** Azoka, herritarren produktu eta eskulane-kin.  
■ **11:30.** Mondejo lehiaketa.

## → Laburrak

### 'Bertsolari' filma ikusgai asteburuan, Gurean

**VILLABONA** Asteburu hone-tan *Bertsolari* filma ikusi ahal izango da Gurea zinemaren. Bihar, 19:30ean eta 22:15ean izango dira saioak. Igandean, 19:30ean, eta astelehenean, ikusle egunean, 21:30ean. Igandean, 16:30ean umeentzat *Phineas & Ferb* filma ere eskainiko dute.

### 1971an jaiotako Tolosaldekoen bazkaria

**TOLOSALDEA** 1971ean jaiotako-koen bazkaria antolatuko dute tolosar eta tolosaldeko guztientzat. Hilaren 19an eguerdiko poteoarekin hasiko dira (Trianguloan, 13:00etan) eta bazkaria 14:00etan Kasinoan izango da. Bertan janariaz aparte, musika eta edariak izango dira. Joan nahi dutenek, hilaren 16rako, 60 euro sartu beharko dituzte Kutzako 2101 0043 18 0012906772 kontuan. Informazio gehiago: [tolosa1971@gmail.com](mailto:tolosa1971@gmail.com).

### 'Txapela nork hobeto jantzi' txapelketa

**TOLOSA** Babarrunaren astearekin batera, Txinparta elkarteak *Txapela nork hobeto jantzi* izeneko lehiaketa antolatu du. Hilaren 19an izango da, 12:00etan, Txinparta elkarteak duen egoitzan. Lehen hiru sailkatuek txapelaz gain, saria dirutan ere jasoko dute. Izen-ematea doakoa izango da, eta 699 16 92 43 telefonoan, edo egunean bertan egin daiteke.





Berrobiko zortzikotea entrenamenduetako batean. HITZA

Berrobiko giza proba taldea Errezilgoaren aurka lehiatuko da bihar gauean; berrobitarrek lehen aldiz hartuko dute parte horrelako proba batean, eta «gogotsu» daudela diote, «ahal dutena emateko prest».

## Indar erakustaldia

**Iñigo Terradillos** Berrobi

**B**anaka nahiz taldeka, nork harri astunarekin metro gehiago egin, denbora jakin batean. Horixe da giza proba. 1.100 kiloko harriarekin, 20 minutuko denboran, ahalik eta metro gehien egiten saiatuko da Berrobiko taldea. Aurrez aurre Errezilgoa izango du. Hitzordua bihar gauean izango da, Errezilgo beheko plazan, 22:30ean.

Errezilgo festak direla eta, bertako giza proba taldeak erakustaldi bat egin nahian Amasako Aiztondo taldeari luzatu zion proposamena, baina hauek ezin zuten, Berrobiko taldeari iritsi zitzaion azkenean proban parte hartzeko gonbidapena. Hauek, bi aldiz pentsatu gabe baiezkota eman zuten.

Estreinako aldia dute berrobitarrek. Ez dira inoiz beste talderen baten aurka gisa bereko proba batean lehiatu. «Berrobiko

jaietan erakustaldi bat egin genuen, elizari hainbat bira emanez harri batekin; hura festa giroko zerbait izan zen, baina larunbatekoa zertxobait serioagoa da», dio Jon Ander Lezea taldekideak.

### Arerio «indartsua»

Bada, seriotasun horrek eskatuta, duela hilabete errezildarren aurka lehiatzeko proposamena jaso zutenetik, «gogor» ari dira entrenatzen. «Astean hiru aldiz elkartzeko gara taldea osatzen dugun zortzi lagunak harriarekin entrenatzeko». Eta hilabete honetako entrenamendua nabari dela esan daiteke, «hobekuntza handia nabari baita emaitzetan».

«Gogotsu» joango dira Errezilgoa bihar, eta arerioa gogorra dela dakiten arren, ahal duten guztia emango dutela diote. «Aimar Irigoien harri jasotzaile errezildarra eta bere anaia daude Errezilgo taldean, beraz, badakigu talde indartsua izango dela, baina guk ahal duguna egingo dugu».

### Parrandan sorturiko taldea

Zortzi lagun beste zortziren aurka ariko dira. Berrobiko zortzikoteari dagokionez, 22 urtetik 40 urtera bitarteko gizonezkoek osatzen dute.

Taldea eratzeko era bitxia izan zuten, Berrobiko jaietan parrandan ari zirela adostu baitzuten giza proba taldea egitea. «Zortzi lagun ginen, eta harri handi batekin elizari buelta emateko konutuz hasi ginen erdi txantxetan Berrobiko jaietara kanpotik etorritako batzuekin; azkenean, jaietan erakustaldi bat egin genuen, eta gero Errezilgoa iritsi zen», azaltzen du Lezea.

Biharko lehen proba dute, baina azkena ez izatea gustatuko litzaieke. «Entrenatzen jarraitzea gustatuko litzaiguke, eta Errezilgoa bezalako proba gehiago izatea, herriz herri ibiltzea erakustaldiak egiten». Ea, beraz, maila eta ikuskizun polita eskaini, eta plaza gehiagotan indarrak neurtzeko aukera duten.

## Kultur asteari amaiera emateko, Azoka Eguna etzi

Herriko produktu ugari izango dira eskura, eta hainbat lehiaketa; arratsaldean talo dastaketa egingo dute

### ↓ Egitaraua

#### AZAROAK 11, OSTIRALA

- **16:30.** DVD saioa haurrentzat, aparkaleku azpiko lokalean.
- **21:30.** *Zelanda Berria* bizikletaz familia giroan ikus-entzunezkoa, eskolako ganbaran.

#### I. Terradillos Berastegi

Pasa den asteko ostegunean hasitako kultur astea ari da bukaerara ailegatzen. Azken ukitua ekitaldi handienak emango dio, etziko Azoka Egunak, hain zuzen.

Asko dira egun honek dituen ezaugarriak. Batetik herriko produktuak ikusi, dastatu eta esku-ratzeko aukera izango da. Bestetik, lehiaketa ugari izango dira, gaztarena nabarmendu daitekeelarik, 20. urtez egingo baita. Parte hartzaileek berastegiarrak behar dute izan, eta gazta norbere etxeko ardi-esnearekin egina.

Lehiaketa honetaz gain, Postu Lehiaketa, Argazki Lehiaketa, Animalia Erakusketa, Ardi, Ahari eta Bildots Lehiaketa eta Baratz Lehiaketa ere izango dira. Guztien sariak eguerdian banatuko dituzte. Taloa eta gazta ardoa eta sagardoaren laguntzaz dastatuz bukatuko dute eguna.

#### AZAROAK 12, LARUNBATA

- **15:30.** Mus-txapelketa herrikoia Basurde Elkartearen.
- **16:30.** Teleipuina haurrentzat aparkaleku azpiko lokalean.
- **Ondoren.** Askaria.
- **19:00.** *Islandia: suzko eta izotzeko lurraldea* bizikletaz ikus-entzunezkoa Mikel Castroren eta Mikel Otegiaren eskutik, aparkaleku azpiko lokalean.
- **22:30.** *Estresa* antzezlan, Leitzako antzerki-taldearen eskutik, frontoian.

#### AZAROAK 13, IGANDEA

- **Goizean.** Azoka Eguna. Herriko produktuak eskuragai.
- **13:00.** Gazta, ahari, ardi eta bildots, postu, argazki, eta Baratz Lehiaketako sari-banaketa.
- **18:00.** Talo jatea, goizeko lehiaketako gaztak dastatuz, ardoa eta sagardoarekin.



Pasa den urteko azoka oso jendetsua izan zen. SARA GOMEZ

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95



≈ 23°  
≈ 17°

GOIZA	LAINTUTUA
ARRATSALDEA	OSKARRI
BEROENA	22°
HOTZENA	16°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leizaldekoko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agurrak**



**Urte askoan!**  
**Uxua Iturbe Usabiaga (Irura).**  
Bihar 2 urte. Zorionak eta muxuak, Laiene eta gurasoen partetik.



**Urte askoan!**  
**Ekhine Iturbe Elola (Irura).**  
Igandoen 5 urte. Ondo pasa zure egunean, muxuak Laiene eta Uxueren partez.

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

●●●● agurrak

**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Tolosa.** Bonbereneak antolatutako Literatura & Art astearren barruan gaur, **Martin Larralde** diska-liburuaren emanaldia 22:30ean. Bihar, 10:00etatik 14:00etara, literatur eskola, eta 22:30ean Bad Sound System, Kodigo Norte eta Rude taldeak, Errima Gauaren barruan.
- **Tolosa.** Gainditzen pertsona gorren elkartearen Film Laburren Nazioarteko Jaialdia gaur eta bihar. Gaur 17:30ean ongi etorria parte hartzaileei, eta 18:30etik 20:30era filmen emanaldia Topic-en. Bihar, aldiz, 10:30etik 13:30era ikusi ahal izango dira filmak. 16:00etatik 19:00etara ere izango dira proiektioak. Sari banaketa 19:00etan izango da.
- **Tolosa.** Peña Butanok 50. urteurrena ospatuko du gaur. 09:00etan meza, eta ondoren poteoa egingo dute bazkaria baino lehen.
- **Amezketa.** Kultur astearren barruan gaur, 20:30ean Dolpon egin duten proiektua Marronen eskutik, kultur etxean.
- **Amasa.** San Martin jaien barruan, gaur: meza eta 12:00etan idi demak; 17:30ean **Irien lagun-nekin kanta eta dantza** emanaldia; ondoren, txokolate jatea; 20:00etan XX. Bakailo Lehiaketa, frontoian; ondoren, mozzorro gaua; 23:30ean dantzaldia Laiotzekin; eta 02:00etan moxorrik onenaren sari banaketa.
- **Berastegi.** Kultur astearren

barruan gaur, 16:30ean DVD emanaldia eta 21:30ean Zelandia **Berria bizikiletaz familia giroan** bizi ikus-entzunezkoa. Bihar, mus txapelketa 15:30ean; 16:30ean telepuiua haurrentzat; ondoren askaria; 19:00etan **Islandia: suzko eta izotzeko lurraldea bizikiletaz** ikus-entzunezkoa; eta 22:30ean **Estresa** antzezlan. Igandean goizean gazte berezia, 13:00etan **Gazte Lehiaketa**, eta 18:00etan talo jatea.

■ **Amezketa.** San Martin eguna gaur: meza eta ondoren laja eta trikitaliak eta bertolariak; 13:30ean umeen bazkaria; arratsaldea haurrentzako antzezlan; iluntzean patata tortila lehiaketa; 21:00etan zahagi ardoa; eta gauean poteo musikatua. Bihar berriz, Ugarten, 15:30ean mus txapelketa eta 20:30ean afaria elkartearen. Igandean, 10:00etatik aurrera azoka, eta 11:30ean mondejo lehiaketa.

■ **Hernialde-Anoeta.** Hernialdeko plazan bihar, 10:00etan hasita, Joakin Garmendia anoetarraren eta Eneko Seinen arteko apustua.

■ **Anoeta.** Kirol astearren barruan bihar, 23:00etan Mendekuko Itxua eta Jostion taldeen

kontzertua gaztetxean. Etzi, igandea, Xake Txapelketako partidak Hozpel kaleko lokalean 10:00etatik 13:00etara, eta 15:00etatik 17:00etara.

■ **Tolosa.** Amaiur koalizioak bihar 11:00etan Naparzubian argazkia aterako du, eta astelehenean, hilak 14, mitina egingo du 19:30ean Zerkausian.

■ **Leitza.** Amaiur koalizioak bihar, 12:00etan geltokian argazkia aterako du.

■ **Tolosa.** Samaniegoko ikastetxeak Erantzukizuna Sustatuz seme-alabengan pedagogi tailerra antolatu du astelehenerako. 17:30etik aurrera izango da Haur Hezkuntzako erabilera anitzeko gelan. Tailerra Ana Elosegi Uranga psikologo sistemoak gidatuko du.

**ZINEMA**

- **Leitza.** *Lola* filma gaur, 22:30ean, eta igandean 19:30ean.
- **Villabona.** *Bertsolarifilma* bihar 19:30ean eta 22:15ean; igandean 19:30ean; eta astelehenean (ikuslearen eguna) 21:30ean. Igandean 16:30ean *Phineas & Ferb* haurrentzako filma eskainiko dute.
- **Tolosa.** *No habrá paz para los*

*malvados* filma bihr, 22:30ean; eta igandean 17:00etan haurrentzako *Phineas & Ferb* filma, eta *No habrá paz para los malvados* 19:30ean eta 22:00etan. Astelehenean (ikuslearen eguna) azken film hau ikusi ahal izango da 20:30ean.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112. ■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

**BIHAR**

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112. ■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

**ETZI**

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria kalea, 46. 943 67 32 74.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112. ■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

**PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK**



P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

**Bertako informazioari,  
bertako produktuak**

Egin HITZAren harpidedun abenduaren 31 baino lehen, eta jaso

**MAHALA** ekoizlearen produktu sorta hau **OPARI**

**Harremanetarako:**  
902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

**hitza** info

**INKERNU**

Diselnu • Jantzigintza

**Azaroak 10, Osteguna DENDAREN IREKIERA**

Gernikako Artisa 1. beheak • TOLOSA  
943 64 43 64 • y.inkernu@gmail.com